




AMAIUR



ARKEOLOGIA ZENTROA

BISITA GIDALIBURUA



*Zure gaztelu zaharrek
gorderik duten aintzina...*

Benito Lertxundi.



© Amaiur Gaztelu Elkartea. Aranzadi Zientzia Elkartea.

Marrazkiak: Enrique Lekuona eta Artzai.

Amaiur. Baztan. 2020.

D.L. / L.G. D 00782-2020

A U R K I B I D E A


1. NON GAUDE?	4
2. BAZTANGO HAITZA	6
3. ERDI AROA: GAZTELUAREN SORRERATIK 1512 ARTE.....	8
4. ERDI AROKO DOKUMENTAZIOA.....	16
5. GAZTELUKO ATEA	18
6. NAFARROA EUROPAKO POLITIKAN DANTZAN.....	20
7. KONKISTA 1512-1522.....	22
8. BORROKAREN LEKUKOAK	26
9. ARMA BERRIAK GAZTELU BERRIAK	28
10. GAZTELUAREN AZKEN EGUNAK	32
11. HARRESI BERRIAK GAZTELUARENTZAT	36
12. OROIMENA	38
13. HERRI AUZOLANA	40



1. NON GAUDE?

AMAIUR, NAFARROAKO GAZTELU BAT

Areto honetan Amaiurko gazteluaren historia eta memoria aurkituko dituzu.



Amaiur herria eta izen bereko gaztelua Baztanen daude, Nafarroan, Iruñetik 57 km eta Baionatik 46 km-tara.

Otsondoko lepoaren (602 m) oinetan dago Amaiur, Pirinioetako bi isurialdeak elkartzen diren bidean. Batetik, Baionako itsas-portura zihoan bidearen erdialdean eta, bertzetik, Donibane Garazirako bidetik hurbil. Hori dela eta, iraganbide hau merkataritzarako gune garrantzitsu bilakatu zen Erdi Aroan. Are inportanteagoa bihurtu zen Nafarroa Beherea Nafarroako erresumen parte izatera iragan zelarik, 1192. urtean.

2. BAZTANGO HAITZA

GAZTELUAREN INGURUKO EZAUGARRI GEOLOGIKOAK

Inguruko geologia egokiari esker, gaztelua haitz baten gainean eta inguruko harriekin eraiki zen. Izan ere, muinoan azaleratzen den gisu-harria egokia da gaztelua oinarritzeko, eta eraikuntzarako materiala eskuratzeko ere baliagarria da. Eskualdean Paleozoiko akabailako eta Mesozoiko hasmentako litologiak daude nagusiki, eta gaztelua eraikitzeo aunitz erabili ziren. Arbelak, legar-harriak eta Karboniferoko konglomeratuak (360 milurteko) Baztan ibarreko mazelen gainaldean ageri dira eta, haien hauskortasuna dela eta, gisu-morteroan eta argamasetan erabili ziren gazteluan.

Legar-harri gorriak ere ageri dira, zeinak Triasikoko arroak baitira (200 milurteko). Inguruko tontor eta kaskoetan daude. Arrunta zen harri horiek ibiltzea Baztan osoko arkitekturan, baita gazteluaren eraikuntzan ere. Kalitaterik hobereneko elementu estruktural eta harlanduak egiteko ibili ziren.

Ibarreko behehialdean gisu-harri dolomitikoen unitate bat ageri da; Gaztelu muinoan, erraterako. Gisu-harri horiek ere arrunt garrantzitsuak izan ziren gaztelua eraikitzean: harlanduxka moduan, zolak egiteko eta zernahi fasetan betekin-material gisa ibili ziren. Horretaz gainera, gisua egiteko iturri nagusia ere baziren, mortairu eta argamasen oinarritzko osagaia, alegia. Arroka igneo inklusioak dituen buztin gorriak (diabasa ofitikoak) ibarraren behean ageri diren materialak dira. Argamasen kargarako edota zeramikazko materialen (teilak, etab.) lehengai moduan baliatu ziren nagusiki.

INGURUNEA

Inguruko klima atlantiar epela da; euria-eta maiz egiten du. Horri esker, oihan eta larreetan aberatsa den lurraldea da eta, batez ere, pagoak, haritzak, gaztainondoak, lizarrak eta hurritzak nagusi dira. Zuhaitz horien zura gaztelua eraikitzeko eta konpontzeko ibili zen eta, orobat, tokiko etxeen eraikuntzan baliatu izan da.




Pagoa /
Fagus sylvatica




Haritza /
Quercus robur



Gaztainondoak /
Castanea sativa



3. ERDI AROA: GAZTELUAREN SORRERATIK 1512 ARTE





ERDI AROKO AZTARNA ARKEOLOGIKOAK

Gune honetan ikusgai dauden materialak aztarna arkeologikoak dira, Aranzadi Zientzia Elkartek Amaiurko gazteluan egindako indusketa kanpainetan berreskuratutakoak. Aztarna hauek guziek erakusten dute gazteluan bizi zirenen eguneroko bizia nolakoa zen eta orduko testuingurua hobeki konprenitzen laguntzen digute.

Erdi Aro inguruko aztarnetan aurkitzen dira batez ere eguneroko tresneriarekin eta janariarekin loturiko arrastoak, hala nola elikagaiak prestatzeko zeramikak, sukaldeko burdinazko tresneria, jakien arrastoak, baita gaztelua bera eraiki, konpondu eta mantentzeko material zein lanabesak ere.

GAZTELU-TALAIA, BIDEAREN ZAINDARIA

Goi Erdi Aroan egin ziren Nafarroako gaztelu gehienak gune estrategikoetan kokatu ziren, erresumaren erdialdera joaki ziren bideak kontrolatzeko. Gazteluak muino garaietan paratzen ziren, zernahi arrazoi tarteko: ahalik eta lur gehien kontrolatzea, bidaiari edo merkatarien babes erreferentzia izatea edota suzko seinaleen bidez inguruko gazteluei etsaien berri ematea. Amaiurko gazteluaren funtzio militar nagusia zen Baztango lurrak kontrolatzea eta ordena soziala mantentzea.




IRUÑA-BAIONA IBILBIDEKO BIDESARIA

Nafarroako monarkiak errege bidesari bat paratu zuen Amaiurko gazteluan. Han, garraiatzen ziren salgaien arabera kobratu ohi zitzairen merkatariei.

1266ko agiri batzuetan ageri dira bidesarietan kobratutako diru kantitateak eta, horien artean, Amaiurren kobratutakoak daude. Uste izatekoa da gazteluaren eta bidesariaren jatorria eta bilakaera hertsiki lotuak zeudela. Bertze dokumentu batean zehazten da zenbat ardo sartu eta atera zen Amaiurko gazteluan, 1317ko apirilaren 17tik uztailaren 26ra arte.


Gazteluko indusketa arkeologikoetan jasotako Erdi Aroko txanponak lurralde aunitzetakoak dira, erraterako, Akitaniakoak, Portugalgoak, Gaztelakoak, Nafarroakoak, Frantziakoak, Herbeheretakoak, Eskoziakoak eta Suediakoak, bertzeak bertze. Txanponen osagai metalikoek ematen zioten bermea pieza bakoitzari, eta kalitate egokiko materialez eginak baldin baziren (kobrea, belloia, zilarra edo urrea) txanpon horiek Europa osoan baliatzen ahal ziren komertzio trukeetan.



ERRET GAZTELUA

Nafarroan zeuden gaztelu gehienak monarkiarenak izan ziren sortzetik beretik. Gazteluek egitura defentsiboa zuten eta, horretaz gainera, erresumaren identitatea adieraztea ere bazuten eginkizun eta, orobat, inguruan bizi ziren herritarrendako babesleku eta boterearen ikur ziren.

Gazteluaren ardura erregearen edo erreginaren ordezkari baten esku zegoen: gazteluzainaren esku, alegia. XIII. mendera arte ordezkari hori nobleren bat izaten zen; geroago, funtzionario baten ardura bilakatuko zen gaztelua mantentzea eta bidesariaren kontrola bermatzea. Amaiurko kasuan, gotorlekua konkistatu baino lehen gazteluzain izandako jaun guzien zerrenda gorde da gaurdaino.



ERDI AROKO EGITURA

Amaiurko gazteluan lan eta konponketa guziak egiteko eskaerak Kontuen Ganberaren oniritzia izan behar zuten, errege gaztelua baitzen. Idazkietan ageri da Erdi Aroan gazteluan egitura hauek zeudela: dorre nagusi bat (1378), perimetro defentsiboan zehar bortz dorre (1389), ura biltzeko aljibe bat (1289) eta dorre txikiak dituen aurre-harresia (1327). Hala ere, ez da atzendu behar egitura aunitz zurezkoak izan ohi zirela, eta gaur egunera arte ez direla mantendu (hori adierazten digute indusketetan agertu diren ehunka iltzeek).

Gazteluan, arruntan 12 soldadu inguru egoten zen, nahiz eta 1280ko dokumentazioan, adibidez, 18 diren iraganbideak zaintzeaz arduratzen direnak, eta zortzi bakarrik, 1453an. Gatazka garaian, 1283an erraterako, soldaduen kopuruak gora egin zuen 30 edo 40 pertsona izan arte.



ERDI AROKO DATA AIPAGARRI BATZUK

1095. Baionako Katedraleko “*Livre d’Or*” izeneko liburua-
ren arabera, Ximeno Gartzes zen Baztango eta *Maierko*
(Amaiurko) jauna.

1192. Gartzia de Oritz Amaiurko gazteluko lehen *tenente*
gisa ageri da. Herriaren ondoan egitura defentsibo bat ze-
goela adierazten duen lehen erreferentzia zuzena da hau.

1266. Amaiurren paratutako bidesariaren lehen errefe-
rentzia dokumentala.

1266. Konpontze lanak aipatzen dituen lehen dokumentua.

1290. Gazteluko ur-biltegi edo aljibean lanak egin ziren.

1327. Dokumentazioan, gazteluaren utzikeria-zantzuak
nabari ziren eta hango giltzak herriko errotazainak zituela
aipatzen da.

1328. Erresumako kontu erregistro baten arabera, Amaiu-
rren 35 etxe zenbatu ziren; hau da, ia 200 herritar inguru.

1378. Matxin de Ozta zurginak adierazi zuen gazteluak *muyt noble torr de donjon* (dorre nagusia) zuela, nahiz eta erran estalkirik gabe zegoela, ustelduta.

1389. Aparicio obra-maisuak dorre nagusiaren eta harresiaren perimetroan dauden bortz dorreren egoera penagariaren berri eman zuen. Guzia konpontzeko aurrekontua 800 liberakoa izan zen.

1452. Joan II.a eta bere seme Karlos Vianako Printzearen arteko Gerra Zibilean Amaiurko erasoaldia edo *destrossa* gertatu zen.




4. ERDI AROKO DOKUMENTAZIOA

NAFARROAKO ERDI AROKO DOKUMENTAZIOA ETA ARTXIBO NAGUSIA


Nafarroako Errege Artxibo Nagusia “artxiboen artxiboa” dela erraten ahal dugu. Haren funtsetan pergaminoak, diplomak, aktak, kronikak, kodexak, planoak, argazkiak eta Nafarroako erakunde eta pertsona ospetsuen gainerako dokumentuak bildu dira, lurraldearen memoria bizia direnak. Artxiboaren sortzea bera Nafarroak bere nortasun historikoa galtzea ekarri zuten gertakariak markatu zuten. 1836an, lehenengo Gerra Karlista eta gero Espainiak erabaki zuen erresumako erakunde gehienak kentzea, bai gobernukoak eta baita administratiboak ere; ondorioz, dokumentazio guzia Probintzia Diputazioari eman behar izan zitzaion. Horrela, Diputazioa Nafarroako memoria historikoaren iraupenaren bermatzaile bihurtu zen.

Nafarroako Erdi Aroko dokumentazioaren zati handi bat 1512ra arte kontserbatu zen erresuma lurralde independentea izan zelakoz. Hala ere, garai hartan ez zen artxibo bakarra egon. Pergaminoak eta bertze kodize batzuk Tebasiko gazteluan kontserbatu ziren, bertze batzuk Lizarrako Gaztelu Nagusian eta bertze hainborte Iruñeko Maria Delgadaren dorrean. Gehienak zurezko kutxa handietan altxatzen ziren, behar zen lekura (arruntean, erregea zegoen tokira)



eraman ahal izateko. Gaur egun, Amaiurko gazteluaren historia osoa ezagutzen dugu dokumentazio horri esker. Gazteluaren sortzetik 1512ra arte, Kontuen Ganberan kontserbatutako pergaminoak eta Nafarroako erresumako Kontuen Erregistroak dira Erdi Aroko gazteluaren fisionomia nolakoa izaten ahal zen erraten diguten dokumentuak. 1512ko konkistaren ondoren, dokumentazioa Artxibo Nagusian berean eta Espainiako bertze artxibo batzuetan banaturik dago, Simancasekoan edota Espainiako Artxibo Historiko Nazonalean, erraterako.

Egun, Nafarroako Errege Artxiboa edo Artxibo Nagusia Nafarroako errege-erreginen jauregi zaharra izandakoan dago, Iruñeko alde zaharrean. Artxiboak erreferente izaten jarraitzen du Nafarroako historiaren alderdiren bat ezagutu nahi duen edozein ikertzailerendako, eta Amaiurko gazteluari buruzko erakusketa hau han gordetzen den dokumentazio baliotsuaren erakusgarri argia da.




5. GAZTELUKO ATEA

Atea izan da betidanik gaztelu guzien funtsezko elementu bat. Arrunt ongi babestutako guneetan paratzen zituzten, ustezko erasotzaileek gaztelura sartzeko ahalik eta zailtasun gehien izateko. Amaiurren ez da ate nagusiaren arrasto garbirik aurkitu, baina kubo handiaren eta ur-biltegiaren artean kokatzen zen. Edonola ere, Peio Esarte historialariaren ikerketek azalera-tu zuten moduan, jakina da Amaiurko gazteluko jatorrizko atea Arraiozko Jauregizarrean kontserbatu dela gaur egunera arte.

ATEAREN HISTORIA

1513ko udaberrian, ate nagusiak kalteak izan zituen, erasotzaileen artilleriagatik. Hori dela eta, 1519ko ilbeltzean konkistatzaileek Doneztebeko Pedro Olague arotzari atea blindatzeko manda-




tua egin zioten. 1522an gaztelua errenditu ondotik, batailan emandako laguntza eskertuz, konkistatzaileek gazteluko atea Urtsuako jaunari eman zioten erregalu, eta honek berea zen Jaurregizarrea dorretxean paratu zuen.

JATORRIZKO ATEA ETA BERREGITEA

Gaur egun leku berean dagoen egurrezko ate blindatu horrek oraino ere garaiko jaurtigaiek egindako zuloak ditu burdinazko azalean. Ateazaharberrituzelarik, Juan Mari Martinez Txoperena errestauratzaileak jaurtigai horietako batzuk dokumentatu zituen, oraino zurean txertatuta zeudelako.

Areto honetan ate blindatu horren kopia duzu, Jokin Larunbek eta Arangurengo Lantegi Eskolak elkarlanean egina. Erdi Aroan zein Aro Berrian ohikoa zen zurezko ateak burdinazko xaflekin blindatzea, gazteluen kanpoko sarbidea hobeki defendatzeko. Teknika eta material bertsuak erabili dira erreplika hau eta jatorrizko atea egiteko.



6. NAFARROA EUROPAKO POLITIKAN DANTZAN

NAZIO ESTATU HANDIEN SORTZEA

Erdi Aroko mundu zaharraren akabailak globalizatutako XVI. mendeko Europari eman zion hasmenta. Errenazimentuak zientziari bide eman zion, eta ideia eta ideologia berriak sortu ziren. Erlijioan, ekonomian eta gizartean berrikuntza handiak gauzatu ziren.

Erdi Aroko monarkiak estatu moderno bilakatzen hasi ziren garai horretan. Errege-erregina autoritarioen eskutik, Europako lurraldeek espantsionismoaren eta zentralizazio politikoaren bideari ekin zioten. Horren adibide da Frantziako Luis XII.aren erregetza (Italiarantz zabaldu nahi izan zuen) eta Isabel eta Fernando errege-erreginen botere militarri esker ere Espainia hedatzen joan zen, hala nola Napolira, Afrika iparraldera, Amerika konkistatu berrira eta Nafarroa aldera.

Honela, bi monarkia boteretsu horien tartean harrapatuta geratu zen Katalina I.aren Nafarroako erresuma. 1512an Aragoiko Fernando erregeak tropa espainiarrak bidali zituen Nafarroa konkistatzera; 1524 arte luzatu zen gerra piztuz.



KONKISTA ZURITUZ

1513ko otsailaren 18an *Iulius II. Papa Ecclesiae Catholicae Romanae*ak, Erromako Aita Saindua zenak *Exigit contumacium* bulda igorri zuen, Fernando Konkistatzaileak hala eskatuta. Dokumentu honen bitartez Aita Sainduak Nafarroako errege-erreginak ziren Katalina I.a eta Joan III.a eskumikatu zituen.



...Declaramos a los dichos Juan y Catalina excomulgados, anatemizados, malditos, reos del crimen de favorecer el cisma y la herejía, de lesa majestad divina y del eterno suplicio, y privados y despo-seídos de todo título, honor y dignidad de reyes. Y confiscando sus reinos, dominios y sus bienes todos, los cuales pasan a ser propiedad de los que de ellos se hayan apoderado o se apoderasen, como si los hubiesen adquirido en la guerra más justa y más santa. Y para mayor seguridad, privamos por sentencia firme a los mismos Juan y Catalina de los dichos honor, título y dignidad regios, así como del reino de Navarra, de los ducados, condados y demás dominios temporales y de todos los bienes que posean en cualquier parte y a que tengan derecho. Y confiscamos todos y cada uno de esos mismos reinos, dominios y bienes...


Bulda hau 1512an hasitako Nafarroaren konkista politikoki justifikatzeko erabiliko dute konkistatzaileek.

7. KONKISTA 1512-1522

GAZTELUA GUDAN

Gaztelako tropek 1512ko uztailan egindako inbasioarekin batera, 12 urtetan zehar luzatu zen gerra piztu zen Nafarroan (1512-1524). Amaiurko gazteluak garrantzia izan zuen gatazka honetan.


Konkistatzaileak lurraldean finkatu bezain laster hartutako neurrietako bat Pirinioetako iraganbideak kontrolatuko zituen defentsa sarea sortzea izan zen. Horretarako, gune inportanteenak gotortu zituzten, hala nola Santa Mariako Haitza (*Castel Pignon*), Irun-Irantzu edota Amaiur. Sare horren guziaren ardatz nagusia Iruñea izan zen.



GAZTELUA ARTILLERIAREN MENPE

1512. eta 1522. urteen artean konkistatzaileek egindako gas-
tua arrunt handia izan zen, eta aurrekontuaren zati handiena
Iruñean eta Amaiurren xahutu zuten. Amaiurko Erdi Aroko gaz-
telua trantsizioko gotorleku bilakatu nahi izan zuten, gero eta
garatuago zegoen artilleriaren erasoak jasateko.

Baina 1521ean estrategia aldatzea erabaki zuten; artilleria
kuboen defentsa baztertu zuten eta ahalegin guziak Iruñeko
gotorlekura bideratu ziren. Norabide aldaketa honen zergatia
argia zen: erresumako herritarren zati handi bat nafar legiti-
misten alde paratzen bazen, ez zukeen deusetarako ere balioko
gastelu txikiz osaturiko sare defentsibo estatiko batek.



ERASOEN AZTARNAK

Indusketa arkeologikoetan azaleratu diren nahiz herriko baratzeetan barreiatuta agertu diren artilleriako materialak, eta horien artean, batez ere, burdinazko kanoi jaurtigaiek, erakusten digute Amaiurko gazteluak eraso gogorrajasan zuela, norabide guzietarik, gainera. Horren adierazgarri dugu, baita ere, gazteluaren harresian inkrustatuta gelditu zen kanoi bola.

Jaurtigai andana atzeman izana ez da arraroa; izan ere, erasoaldiak aunitz izan ziren.

1512. Uztailaren 21a. Tropa inbaditzaileek Nafarroako Erresumako mugak gainditu eta konkistari ekin zioten.

1512. Urriaren 15a. Katalina I.a eta Joan III.a erregina-erregeek beren aliatu frantsesekin batera Nafarroako erresuma berreskuratzeke eraso hasi zuten. Amaiurkoa berreskuratutako lehen gazteluetako bat izan zen.

1513. Apirila. Gaztelarrek Amaiurko gaztelua hartu zuten eraso baten bitartez. Xelen de Ezpeletak zuzendutako giza-garnizioak babestu zuen gaztelua, Nafarroako errege-erreginen izenean.

1513. Ereiaroaren 12a. Aragoiko Fernando erregeak Anton Alguacil izendatu zuen Amaiurko gazteluzain. Orduan hasi ziren Erdi Aroko gaztelua handitu eta egokitzeko lanak, artilleria modernoko erasoei kontra egin ahal izateko.

1515. Ilbeltzaren 17a. Juan Torrollo aljibe-maisuari pagatu zitzaion gazteluan ur-biltegi berri bat egin zezan. Ur-biltegi berria egiteko Amaiur zein inguruko herrietako neska-mutilek lan egin zuten.

1515. Ilbeltza. Gazteluko hornikuntza militarren aipamen idatziak daude: 2 kanoi, 2 *sacre* (artileria txikia), 2 arkabuz eta 50 pika daude gazteluan. Garnizioa infanteriako 100 soldadu eta 10 espingarderoz osatua zegoen, nahiz eta gerra garaian, denera, 50 izaten ahal ziren.

1516. Nafarroako gotorleku gehienak eraisteko agindua eman zen, nafar legitimisten edozein saiakerari kontra egin ahal izateko. Amaiurren, ordea, ikaragarritzko diru-inbertsioak egin ziren; Iruñean egindako lanen aurrekontuak dira inbertsio hori baino handiagoak izan ziren bakarrak.

1519. Ilbeltzaren 20a. Juan de Olague arotz doneztebarrak gazteluko ate nagusia burdinazko 17 txapaz eta diamante itxurako 221 iltzeek forratu zuen.

1521. Urriaren 2a. 4 eguneko setioaren bidez tropa nafar-frantsesek Amaiurko gaztelua berreskuratzea erdietsi zuten eta gotorlekua Jaime Belatz de Medranoren agindutara jarri zen.

1522. Uztailaren 13a. Amaiurko setioa hasi zen, Mirandako Kondea zen Nafarroako erregeordearen gidaritzapeko soldaduekin.


1522. Uztailaren 19a. Amaiurko erresistentziaren akabaila. Kubo nagusiko paretaren zenbait zati eraitsi ondoren, bizirik iraun zuten nafarrek gotorlekua emateko erabakia hartu zuten, bizia salbatzearen truke. Hala ere, zenbait kasutan ez zen hitz hori bete.

1522. Abuztuaren 11. Gazteluaren leherketa. Konkistatzailerik bolbora lehergaiak paratu zituzten gotorlekuaren barnealdean. Eragindako leherketa ibar osoan entzun zen.

8. BORROKAREN LEKUKOAK

AMAIURKO EZPATA

Gazteluko indusketa arkeologikoan harri bloke eta gisu-mor-teroaren azpian egunerokotasunari lotutako materiala agertu da: zeramika ontzien aztarnak, burdinazko lanabesak eta jakien arrastoak. Ohikoa den moduan gerrak edo borrokak daudelarik jaurtigaiak edo babeserako armamentuak aurkitu izan dira, ba-lezta puntak edo gezi puntak, bertzeak bertze.



“Amaiurko espata” dugu, seguruenik, indusketetan atzemandako material arkeologikorik txundigarriena. Bertze arrasto arkeologikoen gisan, espata hau lur eta mortairu tartean agertu zen, suntsitutako eta eraitsitako toki batean. Haren ondoan aizkora baten muturra agertu zen, baita berunezko jaurtigaiak ere. Tipologikoki, XV. mendearen bigarren erdiko espata baten itxura du. Aparteko aztarna izanik, informazio adierazgarria ematen badigu ere, ez dugu sekula ere jakinen norena zen.




9. ARMA BERRIAK GAZTELU BERRIAK

BERRIKUNTZA LANAK

Konkistatzaileen helburua zen Frantziaren eta Nafarroaren arteko muga politiko zein militar berria eraikitzea, Nafarroa kontrolpean izateko. Testuinguru horretan sortu zituzten Hondarribiako gune harresitua edota Irun-Irantzu, Santa Mariako Haitza (*Castel Pignon*) eta Amaiurko gaztelua.

Amaiurko gazteluaren kasuan, ingeniariak trantsizioko gotorleku berri bat diseinatu zuten, Erdi Aroko gazteluari atxikia eta orografia malkartsuari egokitua. Horretarako, eraikuntza teknika berriak baliatu zituzten, hala nola horma apal eta lodiak (artilleriaren erasoak jasateko gai zirenak) eta kubo erdizirkular zabalak (plazako kanoi eta fusileriari egokituak).



Eraikuntza lanak Lope de Isturitzaga, Pedro de Legorreta eta Martin de Amasa hargin gipuzkoarrei eskatu zizkieten, betiere Diego de Vera eta Pedro de Malpaso moduko espezialista militarren zuzendaritzapean.

EGITURA BERRIAK *CUBO MAYOR* ETA *CUBO NUEVO*

Gutxienez bi izan ziren 1513. eta 1522. urteen artean Amaiurko gazteluan eraikitako kubo handi erdizirkularrak eta dokumentazioak *cubo mayor* eta *cubo nuevo* bezala izendatzen ditu. Haien helburua altuera jakin batean kokatutako gunek lauak izatea zen, etsaiengandik babestuta, distantzia luzeko artilleria ibili ahal izateko. Jakin badakigu 1513ko maiatzeko gutxienez kuboetako bat eraikitzen hasiak zirela.


Erdialdeko solairuetako hormek gezi-leihoak izan ohi zituzten, fusileriak gazteluaren gertuko perimetroa kontrolpean izan zezan. Indusketa arkeologikoetan hainbat pasabide sare aurkitu dira kuboaren barnealdean. Hargin-maisuen eta erregetzaren inspektoreen dokumentazioak erakusten du bazela neurri handiko artilleria kubo garrantzitsu bat, *cubo nuevo* delakoa. Idatzitako datuen arabera, kubo horrek forma zilindrikoa izan zen, 20 metro inguruko diametroa, 6 metroko zabalera eta 15-20 metro arteko altuera. Lope de Isturitzaga hargin maisuak egin zuen Amaiurko kubo hau, Logroñon gaur egun arte osorik mantendu den *Revellin* kuboaren eraiki zuen berberak. Kubo honen eraikuntzaren lehen berriak 1516ko azarokoak dira.

UR BILTEGIA EDO ALJIBEA

Dokumentazioan erakusten denaren arabera, Erdi Aroko gazteluak bazuen ur-biltegi edo aljibe bat. Dorre nagusiaren ondoan zegoen eta ganga formako estalki batek babesten zuen. Nahiz eta indusi gabeko eremua izan, han egindako miaketa geofisikoek ur-biltegia gune horretan berean identifikatu dute.


Egitura militarra eraikitzeko lanen ondorioz, 150-200 soldadu ingururendako tokia zegoen gazteluan, eta horrek ur-biltegi handiagoak eraikitzeko beharra sortu zuen. Beraz, euri ura bilduko zuen putzu berriaren lanak 1517a baino urte pare bat lehenago hasi ziren, aljibe-maisua zen Pedro Torrolloren eskutik.

Arkeologikoki ikertu ondoren, ur-biltegi berria ere ganga formako egitura batez estalita zegoela ikusi da. Ezagutzarako ekarpen oso garrantzitsuak egin ditu aljibeak: hezetasun maila konstantea mantentzeko esker zura bezalako material galkorrak kontserbatu dira gaur egunera arte.



MOÇAS EMAKUMEAK LANEAN

Gazteluaren eraikuntzan lanean ari izandako emaztekien kopurua adierazgarria izan zen; hauek hargin-maisuekin, zurginekin edota igeltseroekin eskuz esku aritu ziren. Ordainketa agirietako zerrendetan emazteki izenak ageri dira, aljibera ura igo, zura, harria, lurra eta legarra eraman, lubakiak garbitu edota 1522ko eraispenean laguntzen aritu zirenak. 1521. urtean 70 ziren gazteluan lanean ari ziren emaztekiak. Hala ere, haien soldata gizonezkoena baino apalagoa izaten zen.



10. GAZTELUAREN AZKEN EGUNAK

NOAINGO PORROTA

1521eko ereiarioaren 30ean Noaingo lurretan gertaturiko guduak porrota ekarri zien Nafarroako independentzia defendatzen zutenei. Hala eta guziz ere, berreskuratzeko saiakerak ez ziren bazter gelditu. 1521eko buruilaren akabailan gudaroste nafar-frantses batek bertze erasoaldi bat egin zuen Baztanen eta inguruko lurretan. Honako honetan Amaiurko gaztelua bonbardatu zuten, eta han zeuden konkistatzaileek amore eman behar izan zuten eta gaztelua utzi, urriaren 2an.

Horrela, Jaime Belatz de Medranoren agindupean geratu zen gaztelua, zeinak 200 soldadurekin Baztan ibarra kontrolatu behar baitzuen; gudarostearen gainerako parte a Hondarribia hartzera



joan zen. Belateko pasabidea irekita eduki nahi zen, gerora egin beharko ziren mugimendu militarrek aintzat hartuz. Horregatik, Amaiur guneko estrategiko bilakatu zen, gerora espainiarrek erasoaldi bat burutu eta gibelera egin beharko balitz ere.

AZKEN BANDERA NAFARROA GARAIAN

Gaur den egunean kontserbatu egiten dira Jaime Belatz de Medrano gazteluko nagusia zen bitartean jaso zituen eskutitzak. Espainiarrek gorde zituzten eskutitz horiek haietan agertzen ziren inplikatu guziak salatzeke asmoz. Horri esker, jakiten ahal izan dugu nolakoa izan zen Nafarroako zati batean bere errege legitimoaren menpe atxikitzeke hondarreke saiakera.

Zailtasunak gaitzak izan ziren; alde batetik, gerra zelako eta, bertzetik, defendatzaileen arteko harremana ez zelako beti ona izan. Hala eta guziz ere, denek bazekiten Amaiur izanzen zela Nafarroa Garaiko edo haien arbasoen *Viejo Reyno* delakoaren azken bandera.

GAZTELUKO ZAINDARIAK

Dokumentazioak argitzen digu zazpi zirela gaztelua defendatu zuten jaunak: Jaime Belatz de Medrano, bere semea Luis Belatz de Medrano, Miguel de Xabier (Xabierko jauna eta Frantzisko Xabierkoaren anaietan zaharrena), Victor de Mauleon (Aginagako jauna), bere anaia Luis de Mauleon, Juan de Olloki (Aizkoako jauna) eta Juan de Azpilkueta (Zareko jauna).



Horietaz gainera, nobleziako parte ez ziren bertze nafar kide aunitzek ere parte hartu zuten borrokan hango gotorlekuan. Haien artean zeuden Juan de Desojo (Belateko priorea), Martin de Munarritz, Mateo de Iturmendi, Charles de Saratsa, Juan de Aritzala <<buruleun>>, Juan de Aritzalaren hiru semeak, eta <<negro Jorge>> izendaturiko lagun bat, zeina preso hartu baitzuten Donezteben, gaztelua erori zelarik.

Harresietatik kanpo ere nafarrak egon baziren, baina konkistatzaileei laguntza eskaintzen. Hainbat ibarretan, foruak matzen zuen bezala, laguntza eskatu zuten agintariek; aunitzek erantzun bazuten ere, bertze aunitz isun handiekin mehatxatuta behartuak izan ziren. Beaumontar batzuek beren aldetik eman zuten laguntza haien buru zen Leringo Kondearen gidaritzapean.

AMAIURKO GUDUA

Gaztelua galdu eta 10 hilabetera, konkistatzaileek erregeorde izendaturiko Mirandako Kondea prest zegoen Amaiurko gazteluari eraso egiteko. Defendatzaileak erne zeuden, erasoaren zurrumurrua entzuna zutelako, eta Frantziako aldetik laguntza etorriko zen esperantza zuten. Haatik, defendatzaileen tropak laguntzen ari zen armada frantsesak alde egin zuen. Ondorioz, 200 nafar inguru gelditu ziren defentsan tinko, etorkizuna gordina zela baldin bazekiten ere.

Uztailaren 13an ekin zitzaion gazteluaren setioari, baina artilleria kuboek erasoaldia jasan zuten. Erasotzaileen 16 artilleria-piezek –horietako 3 pisu handikoak ziren– ezin izan zituzten horma sendoak pasatu. Hala, gazteluak 3 erasoaldi jasan zituen, baina hori ikusirik konkistatzaileek kubo nagusiaren alde bat lehertzea erabaki zuten.

1522ko uztailaren 19an horma azpian paraturiko lehergaiak eztanda egin zuen eta harrizko egituraren zati handi bat suntsituta

gelditu zen; horrek ezinezkoa egin zuen gaztelu osoa defendatzea. Gotorlekuaren barnean zeuden nobleek bizirik ateratzea negoziatu zuten, gotorlekua errenditzearen truke. Hala ere, Luis Belatz de Medranok uko egin zion bere espata entregatzeari eta konkistatzaileen soldaduek preso hartu behar izan zuten. Azkenik, konkistatzaileek haien bizia errespetatzeko zin egin bazuten ere, Jaime Belatz de Medrano eta bere seme Luis erail zituzten Iruñeko presondegian.

SUNTSIPENA

Behin gazteluaren kontrola hartuta, konkistatzaileek gotorlekuarekin zer egin erabaki zuten. Gotorlekuan eginahal, denbora eta diru aunitz erabili ziren, baina gutitarako balio izan zuen. Alta, agudo jokatu beharko zuten: uztailaren 25erako Nafarroako Mariskalaren semearen soldaduak, frantsesen laguntzarekin, Ainhoan kokatuta zeuden kontraeraso bati ekiteko prest baitzeuden. Uztailaren 31n gazteluan zutik gelditutako egiturak suntsitzeko erabakia hartu zen eta berehala hasi ziren dorre nagusia eta Erdi Aroko hormak eraisten. Harginek eta inguruko emaztekiek egin zituzten lan horiek.

Gaztelua lehertzeko, hiru pasabide egin zituzten lurpean, harresien azpian. Horietako bakoitzak bi labe edo zabalgunek zituen, bolbora pilatu eta harresiaren perimetro osoa eraisteko. 1522ko abuztuaren 5ean presaka eta beldur handiz ari ziren lanean konkistatzaileak. Amaiurtarrek, berriz, debekatua zuten gazteluaren ingurura hurbiltzea, espioitza lanak saihesteko. Leherketa 1522ko abuztuaren 11n izan zen, eta eztanda Baztan osoan entzun zen. Beraz, gaztelua ustez zimenduetaraino suntsituta gelditu zen, berriz ere inoiz ez berpizteko.

11. HARRESI BERRIAK GAZTELU- ARENTZAT

1637. GOTORLEKU BERRIA

1635. urtean Frantziako erresumak gerra deklaratu zion Espainiakoari, Europaren nagusitasunaren lehiagatik piztutako *Hogeita Hamar Urteko Gerraren* (1618-1648) testuinguruan. Bertze behin ere mugako lurraldeek garrantzia bereganatu zuten, eta Pirinioetako iraganbideen kontrola bermatzeko gotorleku militar berrien beharra sumatu zen. Amaiurko kasuan, Pedro Texeirak defentsarako sistema baluartedun berritu bat diseinatu zuen, gaztelu zaharraren arrasto eta pareten gainean eta izar formako oinplanoarekin.


1637ko apirilean Pedro Palar Fratin ingeniariak eraikuntzan baliatzeko material kantitate handiak erosi zituen. Eraikuntza berri honek, XVII. mendeko gotorlekuen diseinua izanen zukeen, garaian arrunt normalak ziren diamante itxurako bi punta eta guzi. Espainiako ekonomia krisian bazegoen ere, eraikuntza lanak 1638. eta 1640. urteen artean egin ziren.

Tropa frantsesek 1639an egindako sartze baten ondorioz, Amaiurkoa bezalako gotorlekuen eraginkortasuna ezbaian jarri zen. Gotorleku honen gastuak handiak ziren, eta egoera soziopolitikoak indarrak Iruñeko defentsa-gunean kontzentratzea eskatzen zuen. Hartara, 1641ean Juan de Garaik, *maestre de campo* izendatuak, eraiki berri ziren egiturak eraisteari ekin zion.

1522-1641. HARROBIA

Gaztelua eraitsi ondoren, eremua abandonuan utzi zen. Hau guti izan balitz bezala, gotorlekua eta inguruko lurrak monarkiarenek zirenez, tokiko bizilagunek ez zuten gazteluko harriaz baliatzeko baimenik izan. Hala ere, 1582an egoera aldatu zen erregeordeak gazteluaren hondakinetako harriak Amaiurko eliza handitzeko saldu zituelarik. Salmentaren balioa 130 dukatekoa izan zen.

Kalitate handiko harlanduak ziren eta horrek aukera eman zien herritar aunitzi harri horiek beren etxeetako eraikuntza lanetan ibiltzeko. Horren adibide da 1617an herritar batzuen kontra egin zen prozesu judiziala, non zenbait lekukok aitortu baitzuten eraitsitako gotorlekutik harri kantitate handiak ustiatzen zirela. Prozesu horretan, salatutako herritar batzuek argudiatu zuten bazutela harria ateratzeko erretorearen baimena, salmentaren ondoren gune hori elizarena zela erranez. Zigor txikiak paratu zizkieten eta horrekin akitu zen prozesua, nahiz eta gazteluko inguruetan hormak ez eraikitzeak agindua berretsi zen.




12. OROIMENA

memoria/mémoire/memory/erinnerung

Bitrina honetan erakusten dira Amaiurko gazteluaren inguruan mendez mende gure arbasoek sortu dituzten kontakizunen mugarri batzuk. Memoria tokiak historiaren, egiaren eta mitoaren arteko eremu batean sortzen dira. Lekuko hauen bitartez, ikusle bakoitzak bere irizpidea sortzea da xedea.

- 1.- Juan Iturralde.
- 2.- Arturo Campion.
- 3.- Julio Altadill.
- 4.- Lauaxeta.
- 5.- Jon Etxaide.
- 6.- Jimeno Jurio.
- 7.- Pello Esarte.



2




3




4



5



6



7



13. HERRI AUZOLANA

NONDIK HELDU GAREN ETA NORA GOAZEN

XXI. mendearen hasmentan metodologia zientifikoa ardatz hartuta ekin zaio gazteluko aztarnen ikerketari, eraikuntza egiturak musealizatu dira eta gazteluan azaleratutako material arkeologikoarekin erakusketa museografiko iraunkor hau sortu da. Memoria guneek munduko leku guzietan gizartearen interesa sortzen dute, eta kontraesanak eta sentimendu ezberdinak pizten dituzte. Nolanahi ere, herrien identitatearen parte garrantzitsu bilakatzen dira.

Zentro hau gizarte ikasiago baten isla da, unibertsitateetan formatzeko aukera izan duen eta auzolanaren tradizioa ikerketa arkeologikoarekin batzen jakin duen batena. Amaiurko gazteluan gertatutakoaren 500. urteurrenari belaunaldi honek eginiko ekarpena da.

1922

Ereiaroaren 30ean, Nafarroako Diputazioaren laguntzarekin, Amaiurko Udalak monolitoa inauguratu zuen gaztelua kokatzen zen gunean.

1982

Nafarroako Foru Diputazioak monolitoaren berreraikuntza sustatu zuen eta urriaren 10ean berriz inauguratu zen. Baztango Udalak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak ere diruz lagundu zuten ekimena.

2006

Amaiurko herriak eta Baztango Udalak indusketa arkeologikoak abiatu zituzten. Gazteluko ikerketa auzolanean egiten da, partikularren ekarpenei esker eta Udalbideren finantziazioarekin sustengatzen da. Aranzadi Zientzia Elkarteak gauzatu ditu.

2007

Nafarroako Gobernuak monolitoari buruzko erakusketa antolatu zuen Nafarroako Artxibo Nagusian; azaroaren 18an inauguratu zen. Ondoren Amaiurrera eraman zen monumentuaren berreraikuntzaren 25. urteurrena ospatzeko.

2014

Baztango Udalak, Udalbiltzaren babesarekin, Amaiurko gazteluaren aztarnen musealizazioa inauguratu zuen.

2016

Ondarearen hedapena. Urriaren 29an Amaiurko gazteluari buruzko erakusketa monografikoa inauguratu zen Iruñeko Kondestablearen Jauregian, Iruñeko Udalak sustatua.

2020

Amaiurko arkeologia zentroaren inaugurazioa, Amaiurren. Nafarroako Gobernua eta Baztango Udalaren laguntzarekin.


2022

Amaiurko gatazkaren 500. urteurrena gogoratuko da. Data ezin hobe gure helburuak erdiesteko, gaztelua bulkatzeko eta, orobat, Nafarroako historiaren eta haren ondareaz gozatzeko. Hori guzia garapen jasangarri baten bitartez eta Baztango kultura eta natura paisaia zainduz.

Erronka handiak ditugu, batetik, elizaren ondoan egin nahi den bisitarien gunea eta, bertzetik, gazteluaren harresien kontserbazioa eta horretarako Nafarroako historiaren eta ondarearen zale guziona laguntza baitezpadakoa izanen da.

Historia herriak egiten du.

KOK APENA



1. NON GAUDE?
2. BAZTANGO HAITZA
3. ERDI AROA: GAZTELUAREN SORRERATIK 1512 ARTE
4. ERDI AROKO DOKUMENTAZIOA
5. GAZTELUKO ATEA
6. NAFARROA EUROPAKO POLITIKAN DANTZAN
7. KONKISTA 1512-1522
8. BORROKAREN LEKUKOAK
9. ARMA BERRIAK GAZTELU BERRIAK
10. GAZTELUAREN AZKEN EGUNAK
11. HARRESI BERRIAK GAZTELUARENTZAT
12. OROIMENA
13. HERRI AUZOLANA



43

www.amaiur.eus

